

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Nazioarteko Abesbatza Zikloak hamalau herrialdetako taldeak bilduko ditu aurten

2018ko edizioa urriaren 28tik azaroaren 4ra bitartean egingo da Nafarroako 19 herritan

Ostirala, 2018.eko urriak 19

[Nafarroako Nazioarteko Abesbatza Zikloak](#) hiru kontinentetako 14 abesbatzaren proposamenak hurbilduko ditu urriaren 28tik azaroaren 4ra bitartean Nafarroako 19 herri hauetara: Agoitz, Aranguren, Artaxoa, Zizur, Doneztebe, Etxarri Aranatz, Lizarra, Uharte, Irurtzun, Los Arcos, Berriobeiti, Martzilla, Erriberri, Iruña, Pitillas, Gares, Zangoza, Tafalla eta Zizur Nagusia.

[2018ko edizioa](#) Nafarroako Gobernuak antolatu du Kulturako Zuzendaritza Nagusiko Kultur Ekintza Zerbitzuaren bitartez eta Nafarroako Abesbatza Federazioaren eta parte hartuko duten udalen lankidetzaz. Programa hau duela 24 urtez geroztik antolatzen da Nafarroako Abesbatza Federazioaren bultzadaz –aurten hiru hamarkada beteko ditu– eta Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren laguntzaz.

Nafarroako Nazioarteko Abesbatza Zikloa kantu korralaren zabalkundea eta sustapena xede dituen programa da. Aurtengo edizioan, Asia, Amerika eta Europako 14 talde ospetsu hauek parte hartuko dute: St. Jacobs Vokalensemble (Suedia), Entrevoce (Kuba), Daarler Vocal Consort (Alemania), Convivium Singers (Erresuma Batua), Ateneo de Manila Chamber Singers (Filipinak), Orey (Ukraina), The Salt Lake Vocal Artists (AEB), Kamer Koris (Letonia), I Vocalisti (Alemania), El León de Oro (Asturias), Batavia Madrigal Singers (Indonesia), Mikrokosmos (Frantzia), Kinokai Youth Choir Kanami (Japonia) eta Schola Cantorum



Nazioarteko Abesbatza Zikloaren 2018ko edizioaren kartela.

(Norvegia). Talde hauek Nafarroan eskainiko dituzten programek dagozkien herrialdeetako kulturak eta tradizio musikalak islatzen dituzte.

Gainera, era askotako formazioak dituzten abesbatzak taularatuko dira, ganbera talde txikietatik 60 abeslari inguru dituzten koraletaraino. Taldeetako kideen artean, adin guztietakoak daude, eta jatorriei erreparatuta, erakunde erlijiosoei, unibertsitatei zein musika irakaskuntzako zentroein lotutako abesbatzak daude. Ziklo honetan programaturako abesbatzek erreperitorio zabalen gainean lan egin ohi dute, ia-ia estilo polifoniko guztiak barne hartuz, eta batzuek gorputz adierazpena ere tartekatzen dute beraien kontzertuetan. Parte hartuko duten abesbatza guztiek ibilbide bikaina eginga dute eta nazioarteko sari eta aintzatespen ugari irabaziak dituzte.

Kontzertuetarako sarrera doakoa edo prezio murriztekoa da, emanaldiak egingen diren lekuen arabera.